


5. Sailkatzaile Bayestarrak.

Bayes-en teorema. Ariketak

1. Demagun bi kajoi dituzten bi kutxatila ditugula: K_1 eta K_2 . K_1 kutxatilaren kajoi batean bola txuriak daude, eta bestean beltzak. K_2 kutxatilaren bi kajoietan bola beltzak daude.



Bola beltz bat atera dugu. Zein probabilitatez izan da K_1 kutxatilatik ateratakoa? Eta K_2 tik? Erabil ezazu Bayesen teorema galderei erantzuteko.

2. Demagun hiru lagun elkarrekin bizi direla etxe berean: L_1 , L_2 , L_3 . Goizetan lehenengo jaikitzen denak hirurentzako kafea egingo duela adostu dute. %30etan jaikitzen lehena L_1 izaten da, %50etan L_2 eta %20etan L_3 .

Prestatutako kafea ez zaie beti goxoa ateratzen. L_1 lagunari %10etan kafea txarra ateratzen zaio, L_2 lagunari %15etan eta L_3 lagunari %20etan.

Gaur goizeko kafea txarra zegoen. Zein probabilitatez izan da L_1 lagunak prestatua? Zein probabilitatez L_2 lagunak egina? Eta, L_3 -k egina? Erabil ezazu Bayesen teorema galderei erantzuna emateko.